

3 kluba

③ ENE
KANTAK

ELK ARREKIN HEGAN!

abentura berrien bila

Irabazi
arte

Go!
arzen

Imagin
KIDS

www.eitb.eus/3kluba


eitb

Altzearen liburubusa

Inga Moore

Gauero, afaldu ostean, Altzearen egongela lagunez betetzen da, inork ez dituelako istorioak berak bezain ondo kontatzen.

Liburuen magiari buruzko istorio bizia.



AURKIBIDEA

“IRABAZI ARTE” ESTREINALDIA

5.
or.

“IPUIN TXIKI SOINU HANDI” ESTREINALDIA

6.
or.

EDUKI GUZTIAK ESKURA 3 KLUBA APPEan, ZIZTU BIZIAN!

7.
or.

3KLUBA AURTEN KALEAN!

8.
or.

3 KLUBA. KIDEEN ABANTAILAK

9.
or.

3ENE KANTAK

11.
or.

GOAZEN

15.
or.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

21.
or.



Kaixo, lagunak!

Antxus naiz. Jada ezagutuko nauzue gehienok, baina, despistaturen bat baldin badago, jakin ezazue zuekin batera 3Klubean hegan dabilen txoria naizela, kalakari fin eta berbalapikoa. Zuen abentura guztietako laguna.

Urte berriarekin batera, 3Klubak eskutitza igorri die kide guztiei. 25.000 bazkidetik gora gara, eta denek jasoko dituzte klubeko txartela eta eskumuturrekoa Antxus gure maskota berriaren irudiarekin.

2021. urtea berezia bezain pozgarria izan dugu 3Klubeko kideok. Elkar ikusteko aukera izan dugu berriz, elkarrekin jolasteko eta kaleko ekitaldietan dibertitzeko gure 3Klubeko lagunekin batera. Hegan jarraituko dugu elkarrekin, han eta hemen, beti ondo pasatzeko asmoz.

Aurten, “3 Ene Kantak” saioak hirugarren denboraldiari ekin dio. Gure lagunak dibertigarri eta bihurrienek umorez eta kantuz alaitu dizkigute goiz eta arratsaldeak.

Klubeko kide izanik, gainera, hainbat gune bisitatu eta sari ugariz goatzeko aukera izan dugu: liburuak, zinema aretoetako pelikula-estreinaldiak, opariak... Eta “Ene Kantak furgonetako gorabeheretan” liburua eskuratzeko aukera!

Gabonak gainean ditugu eta, urtero bezala, Olentzerori zuen eskutitza idazteko gunea dugu 3Klubaren webgunean.

Gainera, opor egunotan izango dugu zer ikusi eta zertaz gozatu TB3n: pelikulak, emanaldi bereziak, saio berriak eta, nola ez, gogokoenak dituzuen marrazki bizidunak.

Gogoratu eduki hauek denak ikusgai daukazuela 3Klubaren appean, webgunean eta telebistan!

3Klubean ikusiko dugu elkar!

3 kluba

3 kluba aldizkaria
EITB

Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbo
94 656 30 00

HIRU3 komunitatea
94 656 31 22
3kluba@eitb.eus
3kluba

Edizio arduraduna: EITB

Kolaboratzailea:
Ibaizabal argitaletxea

Diseinua, ilustrazioa eta
digitalizazioa: eitb.eus

ESTREINALDIAK ETB3N

Marrazki bizidun eta telesail berriak izan ditugu aurten ETB3n, eta eurak ekarritako abentura guztiekin lagun berriak ere egin ditugu.

Jarraitu dezagun elkarrekin ondo pasatzen!

Gogoratu, gainera, marrazki hauek denak eta gehiago

3Klubaren Youtubeko kanalean ikusi ditzakezuela!



"IRABAZI ARTE" ESTREINALDIA



**Adi aurten ezagutuko dituzuen lagun eta abentura berri hauekin!
Badator "Irabazi arte"!**

Telesailak emakumezkoen futbol-talde bat hartzen du oinarri eta protagonisten bitartez gaur egun gizartean ematen diren askotariko gaiak landuko dituzte; hala nola, futbolaren inguruan eta kirolean bizi den giroa, emakumeen ahalduntzea, nerabeen eta gurasoen arteko harremanak, familia eta, oro har, gaur egungo nerabeek dituzten erronkak islatuko dituzte.

Arene (Sua Enparantza) bere familiarekin Bartzelonatik Learora bizitzera etorriko den nerabe bat da. Une horretatik aurrera, bizitza berri batera egokitu beharko du Arenek. Aitonarekin bizitzen ikasi beharko du eta lagun berriak ere egin beharko ditu. Baina, batez ere, Arenek denen aurreiritzien aurka kementsu borrokatu beharko du emakumezkoen futbol talde bat sortu ahal izateko, herrian inoiz izan den lehenbizikoa.

**Ez galdu gero! Begirik kendu
gabe egongo zarete lagun berri
hauekin guztiekin!**



IPUIN TXIKI SOINU HANDI

Estreinaldia




Astelehenetik ostiralera izango da saioa ikusgai, 20:30ean, **ETB3n**, arratsaldeko “**3 Ene Kantak**” saioaren ostean eta “Lotara” tartearen aurretik. Telebistan eta **3 klubaren** app eta euskarri digitaletan estreinatzeaz gain, **telesaila podcast** formatura ere egokituta egongo da eta egunero, astelehenetik ostiralera, atal berri bat egongo da entzungai **EITBPodkast** plataforman.

Ipuin kontaketa ezberdinak soinu efektu bikainez hornituta daude. Aitak kontatzen ditu istorioak eta umeak, berriz, pertsonaia askoren ahotsak eta ingurumen ezberdinetako soinuak sortzen ditu. Zazpi urteko umea da eta berak lantzen ditu haren ideia eta ahotsarekin “soinu handi” guzti horiek, adin txikiko umeen sorkuntza inspiratzeko helburuarekin. Atal bakoitzean, hiru eta sei urte bitarteko hurrek bizi dituzten transformazio fisiko, mental eta sozialak hizpide hartuko dituzten ipuin laburrak kontatuko dituzte aita-semeak.




3 kluba aplikazioa: Marrazkiak eta saioak nonahi, noiznahi eta di-da batean!

3 Kluba, zure mugikorrean



Zure gustuko marrazki bizidunak eta telesailak nahi dituzunean ikusi zure mugikorrean bertan, jaitsi gure aplikazioa eta eraman zurekin nahi duzun lekura eduki gustukoenak. iOS eta Android mugikorretarako erabilgarri dago.

3 Kluba, zure tabletean



3 Klubaren edukiak tabletean ere gozatu ditzakezu. Umeek, beraien gustuko edukiak jasotzeko primerako euskarria da. Jaitsi gure tableteko aplikazioa. iOS eta Android aukeretan erabilgarri dago.



3 Kluba, zure Smartv telebistan



Internetera konexioa duen telebista baduzu, 3 klubaren edukiekin gozatzeko hainbat aukera dituzu. Telebista konektatuetarako propio prestatutako 3 Kluba aplikazioa hainbat marketan eta dispositibotan eskuragarri dago. Halaber, ETB3ko botoi gorria erabilita ere eskura izango dituzu zure gustuko eduki guztiak. Honako hornitzaile hauetan eskuragarri:

Samsung, Philips, HbbTV , AndroidTV

3KLUBA AURTEN KALEAN!



Aurten, urte hobeagoa izan dugu **3Kluba** osatzen dugun lagun guztiok. Izan ere, kalean elkartzeko eta jolasteko aukera izan dugu, denon irribarreak bertatik bertara ikusiz. **3Kluba kalean** izan da berriro. Urriaren 9an, "**Bizi EITB**" ekimenarekin ekitaldiak antolatu genituen Donostian, Gasteizen eta Barakaldon hainbat ikuskizun, kontzertu eta jolasekin.

Txikieneen kasuan, Donostian, bikain pasatu zuten "**3 Ene Kantak**"-en ikuskizunarekin. Eta beste askok, BECen, "**Go!azen**"-eko kantekin dantza egiteaz gain, pertsonaia berriak ezagutu zituzten.



Imagin
KIDS



IMAGIN KIDS ARGAZKI LEHIAKETA


Imagin Kidsen eskutik, 3Klubeko kideek bidalitako 500 argazkitik gora jaso ziren, eta denen artean **bi tablet** zoragarri zozkatu genituen.

3 kluba



Kaixo lagunok!!

3Klubeko kideek, hainbat abantaila eta opari lortzeko aukera dute eta baita doako sarrerak ere. Jarraian dituzun gune horietara joateko sarrera bat oparituko dizugu, beti ere, helduentzako bat erosita.



www.eitb.eus/kidegin

ZURE URTEBETETZEAN ZORIONDU EGINGO ZAITUGU

Zure argazkia telebistan eta webgunean ikusi dezakezu zure urtebetetze egunean!



LIBURUAK OPARI!!

Ibaizabal argitaletxearen eskutik liburuak zozkatuko ditugu hilero, hilabete horretan urteak bete dituzuen kideen artean.



PORT AVENTURA PARKERAKO SARRERA

Port Aventura parkerako sarrera doan jasoko duzu!

ZOZKETAK, EKITALDIETARAKO SARRERAK, PRODUKTU SORTAK...

Zozketa guztietan parte hartzeko aukera izango duzu!

PortAventura parkerako sarrera doan!

EITBk eta Caixabankek elkarrekin sinatutako hitzarmenari esker, 3 klubeko kideek abantailak dituzte, besteak beste, PortAventura parkera joateko sarrera.

Klubeko kideek posta elektronikoan jasotako kupoia eta imaginKids appa erakutsi beharko dituzte parkeko leihatilan.

Helduentzako sarrera bat erosita, jaso umearentzako sarrera bat doan, eta pasa emozioz betetako **egun zoragarria**, parkeak eskaintzen dituen abentura guztiekin.



PortAventura WORLD
PARKS & RESORT

VUELVE A EMOCIONARTE

2x1
en tu entrada a PortAventura Park

CONSULTA AQUÍ LAS MEDIDAS DE PREVENCIÓN

Cupón canjeable en las taquillas de PortAventura Park. Podrás beneficiarte de una entrada gratuita de un día de junior hasta los 14 años de acceso a PortAventura Park, previa compra de una entrada de adulto de un día en las taquillas de PortAventura Park. Válido una sola vez por día. No válido para otros parques o instalaciones de PortAventura World. Promoción válida del 15/05/21 al 09/01/22 ambos incluidos y según calendario y horario de apertura de PortAventura Park y de Ferrari Land, respectivamente. No se aceptarán cupones, entradas y tarjetas o carnés rotos, enmendados o fotocopiados. Promoción no acumulable a otras ofertas y promociones. No canjeable por su valor económico. Prohibida su venta. Para validar la promoción es imprescindible presentar personalmente en taquillas del parque la app de imaginKids en el móvil.

Consulta las medidas excepcionales de contención del COVID -19 en www.portaventuraworld.com

Galaxy: 1162



PORTAVENTURA HOTELS

AVENTURAS DE DÍA Y DE NOCHE
Ahora puedes elegir entre 6 hoteles tematizados, acogedores y de gran calidad. ¿Cuál escogerás? Solo tienes que pensar en qué aventura quieres soñar.

PORTAVENTURAWORLD.COM

HOTEL MANSIÓN DE LUCY *****
HOTEL GOLD RIVER ****
HOTEL PORTAVENTURA ****
HOTEL CARIBE ****
HOTEL EL PASO ****

“3 ENE KANTAK” SAIOAREN DENBORALDI BERRIA!

3. denboraldiari ekin diote aurten gure laguntxoek! **Eneko, Argi, Urbi, Satorjator** eta **Astonauta**, gure Antxus maitagarriarekin batera, “3 Ene Kantak” berrian buru-belarri dabilta, ETB3ko goiz eta arratsaldeetan, jolastuz ikasten, kantu berriekin gozatzen eta, nola ez, euren arteko gorabehera guztiekin ezin hobeto pasatzen!

Denboraldi berrian, astelehenetik ostiralera ikus ditzakegu gure kuadrilla zoro honen abentura berriak, lehenik goizeko 8:00etan, eta gero 20:00etan, “**Egun On**” eta “**Tokikliki**” tartetean. **Astotxiki** eta **Satortxiki** ere egunero arituko dira gauza eta kontu berriak erakusten eta irakasten: ekonomia, osasuna eta abentura kontuak, besteak beste.



Aurten esaterako, Argik botatako erronkak gainditu beharko ditugu, mota guztietako erronkak. Eta gure lagunak Euskal Herri osoko ikastetxeetan ibiliko dira “**Firin Faran**” kantu eta ekimenekin, haur guztiak bertatik bertara ezagutzen eta ikuskizun ederrak eskaintzen.

“**Iki miliki liklipa**”-rekin aldiz, zuek ere, zaudeten lekutik, dantzan egin eta kantatu ahal izango duzue, karaoke koloretsu baten bitartez.

Saioko eduki guztiak 3 klubaren webgunean, (www.eitb.eus/3enekantak), app-ean eta **HbbTV**an izango dira eskuragai, telebistan eskaini bezain laster.



ESKURATU ZURE PRODUKTU GOGOKOENAK!

3 kluba

Aurten, besteak beste, “Go!azen”eko produktu berriak dauzkagu gure online dendan.
Hauekin batera, beste hainbat ere aurkituko dituzue.





Aurtengo neguan...

...amets handiak izan eta gozatu ume baten moduan!



Ireki **imaginKids kontu** bat eta parte hartu
4 lagunentzako Disneyland® Pariserako* bidaia baten zozketan.

HEGALDIA + HOTELA + MANTENU ERDIA PLUS + SARRERAK

*ImaginKids ImaginersGen S.A.k, CaixaBank S.A. NEZ 20264-2021-00262 sozietateko agenteak, eskainitako produktua da. 10 bidaia zozketatuko dira. Zozketaren indarraldia 2021/12/01tik 2021/12/31ra da, biak barne. Zozketaren saria ondare-irabazitzat jotzen da, **3.450 €**-ko balio zenbatetsiarekin. Sustapen honetako saria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotuta dago ondare-irabazi gisa, eta Caixabankekin egin beharreko konturako sarreraren mende dago. Bi helduentzako eta 3 eta 11 urte bitarteko bi umeentzako bidaia barne hartzen du. Kontsulta itzazu zozketaren oinarri legalak Caixabanken webgunean. Bidaiarekin lotutako edozein informazio, kontsulta edo erreklamazioarako, B the travel brand (Ávoris Retail Division S.L.) delakoarekin jar zaitezke harremanetan 912 778 944 telefonoan.

Irakurketa txokoa


Altzeraren liburubusa

Egilea eta marrazkilaria: **Inga Moore**

Bilduma: **Albumak**


Orrialdeak: **48**

Adina: **5 urtetik aurrera**



LABURPENA:

Inork ez ditu ipuinak altzeak baino hobeto kontatzen. Baina gau batean, bere familiarekin batera suaren epelean eserita, altzeari ez zaio burura etortzen lehendik kontatu ez duen ipuinik. Ipuin-liburu bat behar du. Edo beharbada denek behar dutena liburutegi bat da. Liburuen eta liburutegien magiari buruzko istorio bizia.



Chitty Chitty Bang Bang

Egilea: **Ian Fleming**

Egokitzailea: **Peter Bently**

Marrazkilaria: **Steve Antony**

Bilduma: **Albumak**

Orrialdeak: **36**

Adina: **5 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Pott familiak lasterketetarako auto zahar herdoildu bat erosi du. Benetako erakarpena du auto horrekiko.

Tailerrean asteak buru-belarri lanean eman ostean, Pott familiako aitak lortuko du Chitty Chitty Bang Bang funtzionamenduan jartzea. Horixe izango da autoaren izena, martxan jartzean ateratzen dituen zaratangatik.

Auto zaharrak laster erakutsiko du hegan egiteko, flotatzeko edota, are gehiago, pentsatzeko gaitasun harrigarria duela, eta Pott familia zirraraz eta abenturaz betetako mundura eramango du. Lagundu Pott familiari abentura zoro honetan munduko auto hegalaria magiko ezagunenaren gainean: Chitty Chitty Bang Bang!

Hur, Lur eta Ur

Egilea: **Antton Kazabon**

Marrazkilaria: **Enrique Morente**

Bilduma: **Txirrista (12. zk.)**

Orrialdeak: **24**

Adina: **6 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Basajaunek ongi daki nola zaindu basoak eta mendiak, nola sendatu natura gaixorik dagoenean. Oraingoan Hur txikiak lagunduko dio Lur lehorrean Ur aurkitzen, mendi lehortua berriro landarez janzteko. Lortuko ote dute?



Lurra

Egilea: **Anne Jankéliowitch**

Marrazkilaria: **Annabelle Buxton**

Paper ingeniariatza: **Olivier Charbonnel**

Bilduma: **Albumak**

Orrialdeak: **24**


Adina: **8 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Ireki liburua eta barnera zaitetz gure planetaren edertasunean!

Ikusi Lurra nola sortu zen, zer metamorfosi izan duen eta ingurumenak gaur egun zer erronka dituen; guztia ikuspegi original batekin.

Lurra planetari buruzko liburua, oso-osorik ezagutu ahal izateko 5 pop-up sinestezinekin.



Betidanik
haur eta gazte
literaturan

murgilduta!

ibaizabal
www.ibaizabal.com

Go! Garzen

Aurtengo denboraldian, Zuri eta Enararen arteko harremanak aurrera jarraituko du, baina ez beraiek espero zuten moduan.

Bestetik, Lukenek eta Garazik pasa den urtean pendiente utzi zuten musua emateko aukera izango dute, baina ez da erraza izango.

Gainera, Maddik erronka handi batekin hasiko du uda: abesti bat konposatu nahi du Gaztea Maketa Lehiaketara aurkezteko. Horrela gurasoei erakutsi nahi die musikari izateko bere ametsa serio hartzen duela.



Aurtengo denboraldian gaurko eta betiko abesti ezagunen moldaketak entzun ahal izango dira: Berri Txarrak, Izaro, ETS, Nogen, Olatz Salvador, Hertzainak, Ruper Ordorika, Alaitz eta Maider, Merina Gris, Bulego, Ezpalak, Esti Markez, Gatibu... Eta Dánae Riaño aktoreak berak idatzi eta konposatutako abesti bat ere bai.

Bestalde, **Gaztearen eskutik, ekimen berria** jarri da martxan: **Ainhoa Urretabizkaia**k telesailean entzuten diren musika piezen jatorrizko bertsioak ezagutzeko mikro-saioak eskainiko ditu webean, appan, YouTubean eta ETB3n.

Audioliburuak EITBPodkast atarian

Jasone Osoro idazleak "Go!azen"eko unibertsoan sortutako liburu sorta arrakastatsua **EITBPodkast atarian** dago entzungai, "Go!azen"eko aktore protagonistek irakurrita. Eskuragai daude jada: Iritsi gara!, Lorea Intxaustik irakurrita; Maddiren amona influenzerra, Danae Riañoren eskutik; Eiderren egunerokoa, Esti Lopezen ahotsarekin, eta Asteburu bat eskiatzen, Asier Burgete aktoreak



Ostiraletan, 21:00etan hasita, ETB1en eta eitb.eus-en izango da ikusgai, eta larunbatetan, 15:30ean, ETB3n.

Gainera, atalak eskuragarri egongo dira **Goazen appan** eta **EITB Nahieran** zerbitzuan.



Euskalteka


Euskal edukien plataforma

Lankidetzaz:  eitb



Aurki ezazu  **REPLAYTEKA**n.

3 kluba YOUTUBE KANALA



Haur eta gaztetxoentzako euskarazko edukirik gogokoenak eskura ditugu **Youtube** plataforman, **3Kluba** kanalean.

“3 Ene Kantak”, “Go!azen” eta beste hainbat saioen bideo ugari ditugu ikusgai, eta handituz doa eskaintza egunez egun.

Harpidetu zaitetz 3Kluba kanalera, eta guztiaren berri izango duzu!



Irabazi arte



Zinema
EUSKARAZ



Estreinaldi
berria euskaraz

TRASH

ABENDUAREN 17TIK AURRERA EUSKADIKO
ETA NAFARROAKO ZINEMA-ARETOETAN



2021^{ean}
euskaraz
estreinatutako
filmak

ELFKINAK SABLEHORTZ KAPITAINA ETA DIAMANTE MAGIKOA TOM ETA JERRY
KRANSTON IKASTETXEA: MUNSTROEN ESKOLA MAYA ERLEA: URREZKO ESFERA
OLTXIAK D'ORTAGNAN ETA HIRU MOSKETXAKURRAK SPACE JAM: ARO BERRIA





urtarrila

					1	2	
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							

otsaila

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28							

martxoa

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

apirila

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

maiatza

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

ekaina

					1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12			
13	14	15	16	17	18	19			
20	21	22	23	24	25	26			
27	28	29	30						

uztaila

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

abuztua

1	2	3	4	5	6	7			
8	9	10	11	12	13	14			
15	16	17	18	19	20	21			
22	23	24	25	26	27	28			
29	30	31							

iraila

					1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11			
12	13	14	15	16	17	18			
19	20	21	22	23	24	25			
26	27	28	29	30					

urria

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							

azaroa

					1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13				
14	15	16	17	18	19	20				
21	22	23	24	25	26	27				
28	29	30								

abendua

					1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11				
12	13	14	15	16	17	18				
19	20	21	22	23	24	25				
26	27	28	29	30	31					

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI



**ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON!**

Harpidetu zaitez 3Kluba kanalera, eta guztiaren berri izango duzu!

Gabonak gainean ditugu eta, urtero legez, 3Kluba webgunean Olentzerori eta Errege Magoei eskainitako ataria prestatu dugu.

Eskutitza idazteko aukeraz gain, jokoak ere izango dituzue bertan, eta baita egun berezi hauetan etxea apaintzeko irudi politak egiteko modua ere.